GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín/aldizkaria
# berriak

MARZO 2010 | 2010EKO MARTXOA
Nº 188 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | Fax: 94 421 93 84
gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com

# TOLEDO 10 DEBATE SUS 33 PROPUESTAS




# TOLEDO 10: 33 PROPOSAMEN EZTABAIDAGAI

# El Congreso Toledo 10 reúne a 500 personas de las asociaciones de Feaps

***Tres representantes de Gorabide han formado parte de la expedición de 19 responsables de las organizaciones que forman parte de Fevas***



Víctor Iturburu, Maricarmen Díez y Pablo González (arriba a la izquierda) representaron a Gorabide en Toledo 10.





El congreso se caracterizó por la participación y la cohesión de las entidades.

Tras más de un año de trabajo, el proceso de reflexión Toledo 10 ha llegado a su conclusión. Los días 26, 27 y 28 de febrero, 500 personas delegadas de las asociaciones que forman parte de Feaps se han reunido en la ciudad de Toledo para debatir un documento de 33 propuestas de futuro para la confederación (síntesis de las 275 sugerencias que han emanado de los grupos de trabajo), en lo que respecta a su misión; personas con discapacidad intelectual y familias; poder y participación; asociacionismo; modelo social y entorno; y modelo organizativo.

La tarde del viernes 26, se dedicó a la presentación y contextualización del congreso, y a explicar lo esencial de cada una de las ponencias que sustentaron las reflexiones y argumentos del encuentro. Durante los otros dos días, se procedió al debate y votación de las propuestas que se habían realizado respecto de cada una de las ponencias.

Por parte de Gorabide, asistieron a estas jornadas el presidente Víctor Iturburu, la vocal de la Junta Directiva Maricarmen Díez, y el gerente Pablo González, como parte de la expedición de 19 personas de las asociaciones pertenecientes a Fevas.

## Proceso participativo y plural

El Congreso Toledo 10 ha supuesto la culminación de un proceso de carácter participativo y plural, en el que se ha trabajado por actualizar el enfoque de Feaps sobre cuestiones fundamentales, y gracias al que se ha ahondado en la cohesión entre las asociaciones que forman parte de esta confederación. Así lo demuestran las más de 6.600 personas que han participado –256 en el caso de Fevas–.

A partir de ahora, las conclusiones del congreso se trasladarán a las federaciones, y de ahí a las asociaciones.

LECTURA FÁCIL

500 responsables de asociaciones de Feaps han participado en el Congreso Toledo 10. Allí, han debatido 33 propuestas para mejorar el trabajo de las organizaciones. De Gorabide, han ido el presidente Víctor Iturburu, la vocal de la Junta Maricarmen Díez y el gerente Pablo González.









La Junta Directiva de Gorabide ha participado en las tres jornadas previas organizadas por Fevas. | Gorabideko Zuzendaritza Batzordeak Fevasek aurretiaz antolatutako hiru jardunaldietan hartu du parte.

# Toledo 10 Biltzarrak Feapseko elkarteetako 500 lagun batu ditu

***Gorabideko hiru ordezkari Fevas osatzen duten elkarteetatik joan diren 19 arduradunen taldean***

Urtebete baino luzaroago lanean jardun ostean, Toledo 10 hausnarketa-prozesua burututa dago. Otsailaren 26an, 27an eta 28an, Feaps osatzen duten elkarteetako 500 ordezkari batzartu dira Toledon, 33 proposameneko dokumentu bat eztabaidatzeko, konfederazioaren etorkizunari begira. Proposamen horiek lan-taldeek egindako 275 iradokizunak bildu dituzte gai hauek kontuan hartuta: misioa, adimen ezintasuna duten pertsonak eta haien familiak; ahalmena eta parte-hartzea; elkarteak; gizarte eredua eta ingurua; eta antolaketa-eredua.

IRAKURKETA ERRAZA

Feapseko elkarteetako 500 arduradunek hartu dute parte Toledo 10 Biltzarrean. Bertan, elkarteen lana hobetzeko 33 proposamen eztabaidatu dituzte. Gorabidetik, Víctor Iturburu presidentea, Maricarmen Díez Zuzendaritza Batzordeko kidea eta Pablo González kudeatzailea joan dira.

Otsailaren 26ko arratsaldean, biltzarra aurkeztu eta kokatu ondoren, ponentzien funtsa azaldu zen hausnarketa bideratzeko. Beste egun bietan, ponentzia bakoitzean egindako proposamenak eztabaidatu eta bozkatu ziren.

Gorabidetik, Victor Iturburu presidentea, Maricarmen Díez Zuzendaritza Batzordeko kidea eta Pablo González kudeatzailea izan ziren jardunaldiotan, Fevaseko partaide diren elkarteetatik joandako 19 laguneko taldearen barruan.

## Parte-hartzea eta aniztasuna prozesuaren ezaugarri

Toledo 10 Biltzarra parte hartzeko prozesu plural baten azken urratsa izan da. Prozesu horretan, gogor lan egin da Feapsen ikuspegia eguneratzeko funtsezkoak diren gaietan. Prozesuak, gainera, konfederazioa osatzen duten elkarteen arteko kohesioa handitzeko bidea eman du. Horren froga da prozesuan zehar 6.600 lagunek baino gehiagok parte hartu izana –Fevaseko 256 kidek–.

Hemendik aurrera, biltzarraren ondorioak federazioetara eramango dira eta handik elkarteetara.

# Abierto el plazo de solicitud de subvenciones para productos de apoyo

***La convocatoria foral finaliza en el mes de noviembre, y se dirige a personas dependientes***



La Diputación Foral de Bizkaia ha aprobado una nueva convocatoria de subvenciones para que personas en situación de dependencia y/o con una discapacidad del 33% o superior puedan adquirir productos de apoyo destinados a aumentar su autonomía personal.

Los útiles de apoyo subvencionables tendrán que haberse adquirido entre el 16 de noviembre de 2009 y el 15 de diciembre de 2010, y ser considerados idóneos por medio de un informe técnico. El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 16 de noviembre de 2010.

Para más información, es posible dirigirse al Servicio SAIOA (Tel. 94 453 90 86) o a Gizatek (Tel. 94 607 74 40).

# Produktu lagungarrietarako diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik

***Foru Aldundiaren deialdia azaroan amaituko da eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonentzat da***

Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzak eskatzeko deialdia egin du, menpekotasun-egoeran dauden pertsonek edo gutxienez %33ko ezgaitasunen bat dutenek euren autonomia handitzeko produktu lagungarriak erosi ahal izateko.

Diru-laguntza jasotzeko, produktu lagungarri horiek 2009ko azaroaren 16tik 2010eko abenduaren 15era bitartean erosiak izan behar dute eta egokiak direla egiaztatu behar da txosten tekniko baten bidez. Txosten hori produktua erosi aurrekoa zein ostekoa izan daiteke. Eskaerak egiteko epea 2010eko azaroaren 16an amaituko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo SAIOA zerbitzura (Tel. 94 453 90 86) edo Gizatekera (Tel. 94 607 74 40).

## Desactivación del plan preventivo por la gripe A

## A gripea prebenitzeko plana bertan behera gelditu da

Ante el descenso que ha sufrido la incidencia de la gripe A en Euskadi durante las últimas semanas, tal y como ha informado la Dirección de Salud Pública del Gobierno Vasco, y siguiendo la recomendación de este organismo, quedan desactivados todos los mecanismos extraordinarios puestos en marcha en Gorabide para mitigar su impacto mitigar su impacto entre las personas usuarias, profesionales y voluntarias de nuestros servicios.

El resultado de las medidas preventivas implantadas en los centros de Gorabide ha sido satisfactorio, por lo que el grupo coordinador agradece la colaboración durante estos meses pasados, tanto de profesionales y familiares, como del resto de personas implicadas.

Azken asteetan Euskadin A gripearen eragina nabarmen jaitsi dela ikusita, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak emandako gomendioei jarraituz, Gorabiden bertan behera gelditu dira bertako erabiltzaile, profesional eta boluntarioen artean A gripearen eragina moteltzeko hartutako aparteko neurri guztiak.

Gorabiden martxan jarritako prebentzio-neurriek emaitza ona izan dute; beraz, gure elkarteak eskerrak ematen dizkie profesional, senide eta gainerako guztiei, hil hauetan egindako ahaleginagatik.

# Badaukagu tutoretza. Eta orain zer?

## *Futubide (Gorabide Tutelarako Fundazioa) pretutela zerbitzu bat dauka, eta Gorabideko SAIOA Zerbitzuarekin, tutelari buruzko zalantzak adierazten du*

Tutore edo jagole izendatu gaituzte. Edo guraso-ahala luzatu digute, aita edo ama garelako. Hemendik aurrera beste betebehar batzuk edukiko ditugu. Garrantzitsuena ez da aldatu: jarraitu beharko dugu adimen ezintasuna daukan gure senide hori beti ondo-ondo zainduta egon dadin arduratzen, gure etxean, laguntzak ematen dituen pisu batean edo egoitza batean; izan ere, tutoretza edukitzeak ez du esan nahi gure tutoretzapeko pertsona horrekin bizi behar dugunik.

Hori bai, haren legezko ordezkariak garenez gero, zein den hura bizitzeko lekurik onena eta zer laguntza eta zerbitzu behar dituen erabakitzen parte hartu beharko dugu. Era berean, jakin beharko dugu zelan doazkion gauzak lanean, osasunez zelan dabilen, arroparik erosi behar duen... Oso garrantzitsuak gara haren bizitzan eta gertaera eta bizipen asko konpartituko ditugu.

### Epaitegirako agiriak

Gainera, Epaitegian paper batzuk eskatuko dizkigute. Lehenengoak "Inbentarioa" dauka izana eta 60 egun dauzkagu hura egiteko. Kontua da gure tutoretzapeko pertsona horrek bere izenean zer ondasun eta diru dituen idatziz zehaztea.

Bestalde, urtero haren dirua zertan gastatu den eta zer diru-sarrera izan dituen azaldu beharko diogu epaileari. Horri "Kontuak ematea" esaten zaio. Horretarako, bankuko agiri bat eta libretaren fotokopia eta urteko fakturarik garrantzitsuenak aurkeztu behar dira. Tutorea aita edo ama izanez gero, ez da halakorik egin behar.

Eta, egoera berezietan, ondasunak saldu edo erosteko, herentziak onartzeko eta abar, baimena eskatu behar da Epaitegian.

### Gai honi buruzko informazio gehiagorik nahi izanez gero:

**Futubideko Tutoretza Aurreko Zerbitzua**
Tel.: 94 424 55 62
**Gorabideko SAIOA Zerbitzua**
Tel.: 94 453 90 86

# Tenemos la tutela. ¿Y ahora, qué?

## *Futubide (Fundación Tutelar Gorabide) cuenta con un servicio de pretutela que, junto con el Servicio SAIOA de Gorabide, aclara dudas sobre tutelas*

Ya nos han nombrado personas tutoras o curadoras. O nos han prorrogado la patria potestad, ya que somos su padre y su madre. A partir de este momento, tenemos diferentes obligaciones que cumplir. La más importante no cambia: seguir ocupándonos de que nuestro familiar con discapacidad intelectual tenga siempre la mejor atención, ya sea en nuestra casa, en otra vivienda con apoyos o en una residencia, pues la tutela no implica obligatoriamente convivir con la persona que tutelamos.

Como representantes legales, sí deberemos participar en la decisión de cuál es el mejor lugar para que viva y qué apoyos y servicios necesita. Tendremos que conocer cómo le van las cosas en el trabajo, cómo está de salud, si necesita comprar ropa. Somos unas personas muy importantes en su vida, y compartiremos muchos acontecimientos a lo largo del tiempo.

### Documentos para el Juzgado

Además, desde el Juzgado nos pedirán algunos papeles. El primero se llama "Inventario" y tenemos 60 días para hacerlo. Consiste en detallar, por escrito, los bienes y el dinero que tiene a su nombre la persona tutelada.

También, cada año, tendremos que explicar al juez o la jueza en qué se ha gastado su dinero y cuántos ingresos ha tenido, esto es, la "Rendición de cuentas". Para ello, basta con presentar un documento y una fotocopia de la libreta del banco con las facturas más importantes del año. En los casos de padres y madres, no existe esta obligación.

Y, sólo en situaciones especiales, como venta o compra de inmuebles, aceptación de herencias, etc. es necesario solicitar una autorización al Juzgado.

### Para más información:

**Servicio de Pretutela de Futubide**
Tel. 94 424 55 62
**Servicio SAIOA de Gorabide**
Tel. 94 453 90 86

# puertas adentro de... Centro de Día Atxurizubi

**Atxurizubi es uno de los nueve centros de día que gestiona Gorabide mediante convenios de colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia, en los que ofrece actividades de autocuidado personal, desarrollo físico y emocional o comunicación, y diversos talleres.**

Al entrar en una de las salas de Atxurizubi, suena Beethoven. Pero más tarde lo harán Fito y Fipaldis, Amaral... o Miliki. Y es que la música es fundamental en este centro de día. Ambienta las actividades, pero también es una actividad en sí misma. Tanto, que hasta han creado una banda, con guitarras y teclado de corcho, para emular a sus estrellas favoritas.

En este centro de Mungia, se reúnen a diario 15 personas de localidades cercanas, para realizar actividades como manualidades, estimulación, cocina, jardinería, marquetería, informática... Incluso hacen la competencia al Berriak con un sencillo periódico donde describen sus excursiones y talleres.

Dependiendo de sus capacidades, cada cual tiene un cometido. Jokin y Ana doblan las toallas y Juan las repone, Nerea y Jesus se encargan de los vasos de agua, Aritz coloca las colchonetas...

## Un día cualquiera

Aitor llega más tarde que el resto, por *"ayudar un poco en casa"*, enciende el ordenador y diseña un cartel para formar una peña del Athletic. Mientras, los tres grupos de actividades se afanan en sus cosas y Juan, en la cocina, explica lo sencillo que es hacer pan: *"Lo hace solo; le das y ¡ya está! A la primera sale".*

Pero la actividad de Atxurizubi trasciende de sus paredes, porque las personas usuarias están integradas en la comunidad. Y gracias a la atención del Ayuntamiento de Mungia, participan en cualquier acto que organiza, como el resto del vecindario. Y así, disfrutan cada día.















**Atxurizubi Gorabidek, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetza-hitzarmenari esker, kudeatzen dituen 9 eguneko zentroetako bat da. Nork bere burua zaintzeko jarduerak, gorputza eta emozioak lantzekoak, komunikazioa hobetzekoak eta tailerrak egiten dira.**

Atxurizubiko gela batean sartu eta Beethoven dago entzungai. Baina geroago Fito y Fitipaldis, Amaral... edo Miliki entzungo dituzte. Izan ere, musika funtsezkoa da eguneko zentro honetan. Jarduerak girotzen ditu, baina berez ere bada jarduera bat. Atera kontuak, musika-talde bat ere sortu dute, kortxozko teklatu eta gitarrekin, euren musika "izar" kutunak imitatzeko.

Mungiako zentro honetan inguruko herrietako 15 lagun elkartzen dira egunero, esku-lanak, estimulazioa, sukaldaritza, lorezaintza, marketeria, informatika eta abar egiteko. Are gehiago, Berriak argitalpenari konpetentzia egiten diote euren txangoen eta tailerren berri emateko egiten duten aldizkaritxoarekin.

Nork bere zeregina du, bere gaitasunaren arabera. Jokinek eta Anak eskupainuak tolesten dituzte eta Juanek banatzen ditu; Nereak eta Jesusek ur basoen ardura dute; Aritzek koltxonetak jartzen ditu...

## Egun arrunt bat

Aitor besteak baino beranduago heldu da, *"etxean apur bat laguntzeagatik"*, ordenagailua piztu eta kartel bat diseinatu du Athleticeko lagunarteko kidea izateko. Bien bitartean, jardueko hiru taldeak euren gauzetan dabiltza eta Juanek, sukaldean, ogia egitea zein erraza den azaltzen du: *"Berak bakarrik egiten du; sakatu eta kitto! Lehenengokoan irteten da"*.

Baina Atxurizubiko jarduera bertako esparrutik harago doa; izan ere, bertako erabiltzaileak komunitatean integratuta daude. Eta Mungiako Udalaren ahaleginari esker, Udalak antolatutako ekitaldietan hartzen dute parte, gainerako herritarren moduan.

# Atxurizubi Eguneko Zentroa ...barrutik



# Fechas de verano 2010
# 2010eko udako datak

Ya están disponibles las fechas de los turnos de los Programas de Verano del Servicio de Tiempo Libre:

- **Del 1 al 15 de julio (3 turnos).**
- **Del 15 al 29 de julio (5 turnos).**
- **Del 2 al 16 de agosto (8 turnos).**
- **Del 16 al 30 de agosto (3 turnos).**

El pequeño ajuste de fechas en agosto facilitará cuestiones organizativas y el traslado de las personas usuarias a los destinos de vacaciones.

La notificación de la admisión o situación en lista de espera se comunicará el 7 de mayo, por correo postal.

Cualquier duda se resolverá en el teléfono habitual del Servicio de Tiempo Libre : 94 443 12 10.

Erabakita daude Astialdiko Zerbitzuko Udako Programetarako txandak:

- **Uztailaren 1etik 15era (3 txanda).**
- **Uztailaren 15etik 29ra (5 txanda).**
- **Abuztuaren 2tik 16ra (8 txanda).**
- **Abuztuaren 16tik 30era (3 txanda).**

Abuztuko datetan egin den aldaketatxoak antolaketa erraztuko du, baita erabiltzaileak udalekuetara eramateko modua ere.

Maiatzaren 7an jakinaraziko zaie postaz eskaera egin dutenei onartuta dauden ala itxaron-zerrendan dauden.

Zalantzarik edukiz gero, deitu Astialdiko Zerbitzuko ohiko telefonora: 94 443 12 10.

## Agradecimiento a la familia Erdoiza Santisteban
## Erdoiza Santisteban familiari eskerrak

Gorabide quiere agradecer a la familia Erdoiza Santisteban la ayuda que ha prestado a la asociación, desde 1972, con la cesión del piso que ha utilizado como sede la Agrupación de Durangaldea. Este espacio ha servido de base para impulsar servicios tan significativos como la Residencia Atxarte, pionera en la atención a personas con graves discapacidades, desarrollar actividades de tiempo libre, el taller de Lantegi Batuak y un largo etcétera.

Gorabidek bihotzez eskertu nahi dio Erdoiza Santisteban sendiari 1972tik Durangaldeko Elkarteak egoitza moduan darabilen pisua utzi izana.Toki hori garrantzi handiko zerbitzuak bultzatzeko oinarria izan da; besteak beste, Atxarte Egoitza, ezgaitasun handiak dituzten pertsonak atenditzeko aitzindaria izan dena, astialdiko ekintzak, Lantegi Batuen tailerra eta abar.

## LABURRAK
## BREVES

### El voluntariado de Gorabide, premiado

El 4 de marzo, la Fundación Antonio Menchaca entrega su Premio a la Solidaridad 2010 al voluntariado de Gorabide. Así, se reconoce aún más la dedicación y colaboración de quienes ofrecen parte de su tiempo para que las personas con discapacidad intelectual puedan disfrutar de su ocio de manera normalizada, estableciendo relaciones personales que sirven de ejemplo de la verdadera integración.

### Gorabideko boluntarioei saria

Martxoaren 4an, Antonio Menchaca Fundazioak 2010eko Elkartasunarentzako Saria eman zien Gorabideko boluntarioei. Era horretara, ahalegina eskertu diete adimen ezintasuna duten pertsonek aisia normaltasunez goza dezaten euren denboraren zati bat eskaintzen dutenei, benetako integrazioaren adibide diren harremanak ezartzen dituztelako.

### El proyecto de ética de Gorabide, en la revista Siglo Cero

El último número de la revista Siglo Cero que edita Feaps incluye el *Proyecto para el desarrollo de la ética en Gorabide*. Es la publicación científica más antigua y difundida en castellano sobre discapacidad intelectual, con gran prestigio.

### Gorabideren etika proiektua Siglo Cero aldizkarian

Siglo Cero aldizkariaren azken zenbakian Gorabiden Etika Garatzeko Proiektua agertu da. Siglo Cero adimen ezintasunari buruzko argitalpen zientifikorik zaharrena da gaztelaniaz eta zabalkunde eta entzute handia du.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, contribuyendo así a la mejora de su calidad de vida y a la promoción de una sociedad más justa y cohesionada.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, adimen ezintasuna duten bizkaitarrei eta haien familiei laguntzera bideratua, bizi kalitate hobea izan dezaten eta gizartea zuzenagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko.




Gorabideko Astialdiko Zerbitzuko Alaia eta Gernika klubetako 25 erabiltzailek, Iberdrolako boluntarioekin batera, elorriak, haritzak, urkiak eta zuhandorrak landatu zituzten Bermeoko Almike aldean otsailaren 6an, Iberdrolaren Zuhaitzaren Egunean. Honenbestez, Astialdiko Zerbitzuak hirugarrenez hartu du parte Urdaibai Fundazioak Bizkaiko basoak berreskuratzeko asmoz martxan jarritako ekimen honetan.

Unas 25 personas usuarias de los clubes Alaia y Gernika del Servicio de Tiempo Libre de Gorabide, junto con personas voluntarias de Iberdrola, plantaron ejemplares de espinos, robles, abedules y cornejos, en la zona Almike de Bermeo, durante el Día del Árbol Iberdrola, celebrado el 6 de febrero. Así, el Servicio de Tiempo Libre ha participado por tercer año consecutivo, en un proyecto de la Fundación Urdaibai para la recuperación forestal de los bosques autóctonos de Bizkaia.

# agenda



marzo | martxoa

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 10 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 31 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 2 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

**SESTAO** — Comisión / Komisio
*La Galana, 20-bajo/etxabe - Sestao*
**Día / Eguna** 18 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 17:30

**DURANGALDEA** — Comisión / Komisio
*Casa Social. Astarloa, 1-3 - Durango*
**Día / Eguna** 15 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:00

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 1 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Días / Egunak** 2, 9, 16, 23 y 30 — **Hora / Ordua** 20:00

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES / GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 2 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**ADULTOS / HELDUAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 3 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

**NUEVOS / BERRIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 1 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:30

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 16 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 11 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADULTOS / HELDUEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 25 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

Familias de adolescentes / Nerabeen familiak

**Experiencias de vida independiente. Bizitza independentearen esperientziak**

Jose Félix Rentería
Servicio de Viviendas de Gorabide
Gorabideko Etxebizitzako Zerbitzua

Día / Eguna 22 lunes / astelehena — Hora / Ordua 18:30
Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)